

20 urte eta gero

Angel Gallo Fernandez



Zumalako
Udala



Z ZUMAIA
BIZITZEKO
DA

*enkar
txanpa*

20 urte eta gero

Angel Gallo Fernandez

Julene Azpeitia 33. ipuin lehiaketa

2020

Zumaiako onenaren saria

2020ko azaroan digitalizatutako ipuina.

© Angel Gallo Fernandez (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Enire: Ordu bietan joan zen Itsaso.

Izar: Hirurak izango ziren Itsasok ospa egin zuenean, ondo oroitzen dut. Artean ordubete geratzen zen tabernak ixteko, eta ez zitzaidan ondo iruditu. Hau da, lagunekin irten zara, ezta? Orduan, zergatik alde egin arinago? Lauretan gehienak etxera joango ginen, edota azken zigarreta erretzen geratuko ginen gaua zertxobait luzatzearren, baina hiruretan? Zein da arazoa, gutaz nekatuta zaudela? Akaso aspertzen zaitugu?

Enire: Tipo harekin joan zen, atzerritar harekin. Uste dut italiarra zela, ezin ondo oroitu. Agerikoa zen ez zela inguruetakoa, horren tipo ederrik ez dago hemen inguruan! Ederra zela, inoiz ikusi dudan mutilik guapoena zela, hori bai oroitu dezakedala, eta ondo gainera! Gero gertatu zena ikusi eta gero, argi dago ez zuela ondo egin baina, zintzoak izanda, nor ez zen tipo harekin joango?

Izar: Bi edo hiru tabernatan egin genuen topo tipo harekin, eta denetan gerturatu zen Itsasorekin hitz egitera. Lotsabakoa iruditu zitzaidan niri tipoaren jarrera, baina Itsasok ohara dagoen txakur bat ematen zuen haren alboan. Egia esan, ikuskizun tamalgarria eman zuen Itsasok. Deitu eta berehala artzainarengana doan ardia ematen zuen.

Begira, nire laguna zen, ados? Baina horrek ez du esan nahi bere ekintza guztiei men egin behar nienik! Kasu hartan ez zen ondo portatu. Hau da, gurekin zaude, ados? Gurekin irten zara, zure kuadrillarekin. Eta hor zabilta taberna guztietan inoiz ikusi ez duzun tipo baten atzetik, bere begiradaren bila, hizketan noiz etorriko zaizun zain. Zure lagunetikiko errespetu falta iruditzen zait niri.

Agian nik laguntasuna beste modu batean ulertzen dut...

Izar: Azkeneko aldiz Tximista tabernan egin genuen topo tipo harekin eta bere lagunekin. Oraingoan Itsaso izan zen hizketan gerturatu zitzaiona, aurrekoetan ez bezala. Hamar minutu inguru pasa zituzten hizketan, eta gero nigana etorri zen. Orduan esan zidan bazihoala.

Ez zitzaidan gaizki iruditu, guztiz kontrakoa baizik! Asteburuero geratzen ginen garai haietan, eta gure herrian ez zegoen zeregin askorik, beti jende berdina eta taberna berdinak, badakizu, eta behingoz zerbait zirraragarria sortzen zaizula... Ondo egiten zuen, ze demontre!

Jagoba: Neskentzako ez da horren erraza. Eta orain ez bada, lehen are gutxiago.

Enire: Irribarretsu ikusi nuen, pozik. Baina horrelako mutil batekin joan behar duzunean... nola ez zen egongo pozik ba? Beragatik poztu nintzen ni ere.

Besteei agur esateko eskatu zidan. Beste guztiei mutil batekin zihola esatea... Badakizu, ez da horren erraza. Herri txiki bat da hau azken finean, eta mundu guztiak hitz egiten du, eta gero txutxu-mutxuak jasan behar... Badakizu, ezta?

Eta gero... Esaldi berezi bat esan zidan. Ez dut inoiz ahaztuko. "Nik ere eskubidea dut. Zer irten daiteke gaizki?" esan zidan. Hasieran pentsatu nuen tabernako musika tarteko ez nuela ondo entzun, baina bai, oso argi entzun nuen. Oraindik bere hitzak entzun ditzaket, horrenbeste denbora eta gero. Gertatu zena eta gero, sarri zalantzan jarri izan dut ez ote zuen berak bilatu...

Jagoba: Niri ez zitzaidan gaizki iruditu. Unaxengatik arduratu nintzen zeren eta, azken finean, urte luzeak zeramatzan Itsasoren atzetik. Baina aizu, nahiko argi utzi dizu zurekin ez duela ezer nahi. Hortaz, aurrera egin behar! Itsasok eskubidea zuen bere bizitza bizitzeko. Kuadrillako tipo bat berataz zegoelako ez zuen bere bizitza moja baten moduan pasako!

Izar: Argi dago ez zuela ondo egiten. Eta berak ere bazekien hori. Bestela zergatik Enireri bakarrik esan zion zerbait? Zergatik ez esan modu ireki batean, denei, "agur, banoa ezagutzen ez dudan tipo horrekin"? Besteoi eskuarekin agur kikildu bat baino ez zigun egin. Erregeak egiten dituen konpromisozko agur faltsuetako bat iruditu zitzaidan niri!

Ez gaizki hartu nire hitzak: hau da, ondo iruditzen zitzaidan mutil batekin egotea. Noski! Denok egin dugu hori noizbait, ezta? Baina formak... Formak zaindu behar

dira. Gure kuadrilla arrantzan joateko aitzakia bailitzan erabiltzen zuela iruditu zitzaidan niri gau hartan.

Unax: Barre egiten dut orain, kar-kar-kar! Lelo samarra nintzen garai hartan, atzera begira. Baina, aizu, nor ez da maiteminduta egon gaztaroan? Eta norbait ez bada egon, hori bai bizitza tristea! Orain polita iruditzen zait garai hura... Itzultzearren dena emango nuke. Dena eta denok itzultzearren...

Jagoba: Nahiko ondo hartu zuen Unaxek. Nik uste une hartan amaitu zitzaiola nerabezaroa. Momentu horretan, bere golkoak nolabait onartu zuen Itsasorekin ez zuela zereginik, eta urte luzetako itxaropenari agur esan zion. Noizbait gertatu behar zen, eta gau hartan izan zen. Bere onerako izan zen, gainera, horri esker Maite ezagutu baitzuen handik zenbait urtetara eta orain poz-pez bizi baita. Behintzat, norbaitentzat zerbait ona ateratu zen gau hartatik... Hasieran kezkatu nintzen, Maiteri Itsasoren antz gehiegi hartzen nion-eta, baina oso ondo moldatzen direla entzun dut. Pozten naiz beragatik.

Izar: Atzeko atetik joan ziren, eta gu ere handik irten ginen. Badakit horrela esanda kuxkuxeatzera joan ginela pentsatu dezakeela norbaitek, baina gu beti handik irteten ginen erretzera, eta bagenuen erretzeko ordua. Garai hartan orain baino gehiago erretzen genuen eta ez zen beti tabakoa, hau da, mundu guztiak egiten zuena, baina hori... Tabernaren ate nagusian ez genuen halakorik erre nahi.

Enire: Denak ez ginen irten, laupabost bakarrik. Besteak Tximista barruan geratu ziren. Ez dakit zergatik irten nintzen ni, egia esan, ez bainuen erretzen. Agian Itsaso begi zelatariengandik babestuko nuela irudituko zitzaidan. Batek daki. Denbora luzea pasa da.

Unax: Sekulako zepelina harrapatu nahi nuela oroitzen dut. Itsaso tipoa harekin joango zela jakin bezain pronto buruan sartu zitzaidan ideia hura. Eta besteak errepidearen parean porro batzuk erretzera zihoazela esan zutenean... bat egin nuen. Ez nintzen ohartu Itsaso aldentzen ikus nezakeela handik.

Izar: Han joan ziren, maldan gora, hondartzarantz. Itzurunerantz. Unaxenganako sekulako errespetu falta iruditu zitzaidan. Hau da, zure txikitako laguna duzu, ez duzu zertan hori bere muturren aurrean egin behar, ezta?

Enire: Hasieran urrunduta zihoazen. Gero gerturatu eta, azkenean, elkarri geritik oratzen ziotela iruditu zitzaidan. Oso polita ere iruditu zitzaidan. Badakizu, gaztetako maitasun puntu hori, zerotik infinitura segundo gutxitan igarotzeko ahalmen hori...

Jagoba: Begiratzeari utzi eta hitz egiteko konturen bat atera nuela oroitzen dut. Futbola ziurrenik. Neskei buruz hitz egiteko momenturik egokiena ez zirudien. Baina tira, futbolari buruz ere ez, kar-kar-kar! Unax Itsasoren kontu horretaz gehiegi pentsa zezala ekidin nahi nuen baina, tira, kale.

Unax: Mina oroitu dezaket. Norbait maite duzunean eta maitasun hori itzultzen ez dizutenean sentitzen duzun min hori zen. Ez baduzu hori sentitu, ez zara guztiz bizirik egon.

Izar: Ea segurua zen galdetu niela oroitzen dut.

Jagoba: Harritu egin ninduen Izarren galderak. Burutik ere ez zitzaidan pasa egoera segurua izan ez zitekeenik.

Enire: Mutilek abantaila hori daukate, badakizu? Ez dira segurtasunaz arduratu behar. Bai, ados, zerbait gertatu ahal zaie, baina ez da horren erraza. Ez diote baliorik ematen, baina aparteko luxua da. Guretzat ordea...

Izar: Han geunden eta nik ezin nuen sinetsi. Hau da, zure lagun batek bakar-bakarrik ospa egiten du ezagutzen ez dugun norbaitekin, herrikoa ere ez den norbaitekin, gure hizkuntza hitz egiten ez duen norbaitekin, eta zu hor geratzen zara? Lasai-lasai, geldi, ardurarik gabe? Ez dakit, agian ni naiz, baina nire lagunengandik beste zerbait espero nezakeen.

Unax: Nik ez nuen ezer esan nahi, besteek pentsatuko zutenaren beldurrez. Betikoa, jelskor nengoela eta halakoak etorriko zitzaizkien burura, eta pena emango nien. Nik ez nuen lehen pausoa emango. Baina Izarrek arrazoi puntu bat zuen.

Enire: Maldan gora begiratu nuenean, bide erdian dagoen zubia azpitik zeharkatzen ari ziren. Itzaletan murgildu ziren une batez, eta bistatik guztiz galdu genituen. Eta sentsazio arraro bat izan nuen. Zerbait ondo ez zihoala esan zidan zerbaitek barruan. Zerbait horrek ez zioen gaizki zihoanik, baina bai arraro. Herri txiki batean bizi zarenean, badakizu, ez da inoiz ezer gertatzen. Eta gertatzen denean, badakizu, larritu egiten zara.

Izar: Bi aldiz esan behar izan nien. Inor ez zen mugitzen han. Hau da, zure laguna arriskuan egon daiteke eta nik esan behar dizut zerbait egin behar duzula? Mesedez!

Enire: Zubiaren itzaletatik irteten ikusi nituen eta zertxobait lasaitu nintzen. Baina laster heldu ziren maldaren goiko aldera eta beheranzko bidea hartu zuten, eskailera eta hondartzara daramana, eta berriz galdu nituen. Eta Izarrek berriz esan zigun zerbait egin behar genuela.

Jagoba: Izar tematu eta gero, beraien atzetik joan ginen. Badaezpada. Ez genuen galtzeko ezer, eta kontuz ibiltzen baginen Itsaso ez zen ezertaz ohartuko.

Unax: Ondo egin genuela uste dut. Tira, orain argi dakit ongi egin genuela, eta agian gehiago ere egin behar genuela. Baina orduan diot, momentu hartan. Ondo egin genuen. Kalterik ezin genion egin. Eta Itzurunen ordu hartan ez zen inor egongo; beraz, badaezpada...

Polizia 1: Gogoratzen dut hutsik zegoela Itzurun. Egurrak eta harriak eta olatuak eta animalia bat, besterik ez. Itsasoari begira lasai asko geunden biok Hondargaineko behatokitik, eta ez zen ezer gertatzen. Herri horretan inoiz ez da ezer gertatzen. Tira, edo ez zen ezer gertatzen garai hartan, baina gauzak gehiegi aldatu ez direla imajinatzen dut. Behatoki hura, Hondargainekoa, gustuko genuen. Itsasoa handi eta zabal ikusten da handik, eta hondartza zure azpian, urrun baina gertu aldi berean. Toki lasaia da turistarik ez dagoenean.

Horrela ikusi genuen bikotea hondartzara jaisten. Urertzera gerturatu ziren eta han musukatzen hasi zirela uste dut. Ezin ziur esan, urruti baikeunden, baina, tira, zer beste egin dezakezu han ordu txikietan?

Polizia 2: Ez zirudien kontsumitzera zihoan inor zenik. Ezta kanpin denda montatu eta lo egitera, edota lo-zakutan gaua pasatzeko asmoa zuen inor.

Iribarre egin nuela oroitzen dut. Nire gaztetako denborak ekarri zizkidaten gogora; gureak oso ezberdinak ziren, beti neskengandik urruti eta drogetatik gertu, baina hondartzen iluntasunaren bila, olatuen soinuek gureak estaliko zituztelakoan.

Unax: Lotsagarria izan zen. Hondartzara jaitsi aurreko pretil horretara heldu ginen, eta Itsaso eta tipoa urertzean ikusi genituen. Musukatzen hasi zirela esango nuke, baina ez nago ziur. Ez nuen begiratu nahi. Zer arraio egiten genuen han? Lotsagarria zen. Gauza lotsagarri ugari egin ditut bizitzan, baina lagun bat

ezezagun batekin nola musukatzen den ikustea... Eta ez edozein lagun, baizik eta gustuko duzun bat... Filma bateko pertsonaia ankerra bezala sentitu nintzen. Filma txar horietako pertsonaia ankerra bezala.

Enire: Geunden lekuan egonda, ikus gintzaketen. Hau da, Itsasok eta tipo hark gorantz begiratuko balute, han ginela jakingo zuten. Gu argitan ginen eta beraiek berriz ilunpetan; oso erraza zen gu ikustea! Hau lotsa! Nire laguna zen Itsaso, nolatan egiten nion halakorik?!

Jagoba: Handik alde egitea proposatu nuen nik.

Izar: Norbaitek handik ospa egitea proposatu zuen, baina nik handik ez nindoala esan nuen. Hau da, hara heldu eta gero, ospa? Ikusi genuelako salbu zegoela uste zuten? Benetan? Ezin nuen sinistu! Porru bat atera, piztu eta amaitu arte handik ez nintzela mugituko esan nuen.

Unax: Inor mugitzen ez zela ikusita, pretilean eseri nintzen eta hankak airean jarri nituen. Altura ederra dago bertan. Okerreko mugimendu bat, erori eta zureak egin du. Uste dut hori nolabait atsegin nuela garai hartan. Edo agian Itsasok utzi zidan hutsunea baino ez zen. Zure bizitza zeinen erabaki txikien menpe dagoen sentitzea atsegin nuen. Zeinen gutxi garen.

Polizia 1: Paseatzen hasi ziren.

Polizia 2: Ez dakit zergatik ez ginen mugitu. Gustura geunden han eta aparteko lanik ez zegoen. Beraz zertarako joan beste inora.

Enire: Hasieran dena lasai eta normal zihoan. Normalegi, edota egoera horretan joan daitekeen bezain normal. Baina arrazoi zuen Izarrek: badakizu zerbait gaizki joango dela sentitzen duzunean? Badakizu zelakoa den azaldu ezin dezakezun sentipen hori? Badakizu, ezta? Ba hori sentitzen nuen. Nik uste besteek ere sentitzen zutela.

Unax: Nik lotsa baino ez nuen sentitzen han egonda. Alkohola faltan botatzen nuen.

Jagoba: Handik ospa egiteko gogoak baino ezin ditut oroitu. Baina taldean hartzen diren erabaki horiek tarteko, ez ginen joan. Erretzen hasi ginen, beste askorik ezin genuen egin-eta.

Izar: San Telmo alderantz joaten hasi zirenean nabaritu nuen zerbait okertu zela. Tipoa tiraka ari zen. Ez joko bat bailitzan edota tankerakotan, benetan tiraka baizik. Hau da, denok egon gara horrelako egoera batean eta badakigu bereizten tiraka aritu eta tiraka ez aritzearen artean, edo? Edota agian bakarrik emakumeok dakigun zerbait da, batek jakin.

Tente jarri nintzela oroitzen dut. Besteek begiratu ninduten, gertatzen ari zenari beharrean. Baina zer arraio...? Ez al zuten zeregin hoberik? Ez al zuten ikusten gertatzen ari zena? Zenbaitetan jendea ezin dezaket ulertu.

Polizia 2: Kolpetxo bat eman nion kideari. Arretaz begiratzeko esan nahi nion. Agerikoa zen gauzak okertzen ari zirela.

Polizia 1: Konturatu orduko hondartzaren zatirik ezkutuenean zegoen bikotea, eta bietako batek, mutila zirudienak, bestea hara bultzaka zeramala esango nuke. Halako batean arropa puskatu zion, goiko zatia gaizki oroitzen ez badut. Ez zen nahigabe egindako zerbait izan: horrelako horrenbeste egoera ikusi eta gero, tamalez, erraz dakizu noiz datorren egoera konplikatua bat eta noiz den alarma faltsu bat.

Polizia 2: Hondartzarantz zuzendu nintzen. Buelta ederra eman behar duzu han goitik, beraz nahiago nuen garaiz ibiltzea.

Polizia 1: Nire kideak jaistea erabaki zuen, eta ni han goian geratuko nintzela esan nion. Badakizu, gertatzen ari zena ez galtzeko. Hondartzara daraman bidean ezin duzu hondartzan gertatzen dena ikusi.

Unax: Nik uste musukatzen ari zirela, eta agian beste zerbait egiten ere hasi zirela. Baina begiratu gabe pentsatu nuen hori; izan ere, begiratzen nuen bakoitzean lotsagarri sentitzen nintzen. Nigatik izan balitz, aspaldi ginen handik joanak.

Enire: Doi-doi ikus genitzakeen. Hondartzaren ezker aldea ezkutatzen duen harriek justu-justu uzten ziguten zerbait ikusten. Zertxobait barrurago egiten bazuten, akabo. Neurri batean hobeto, izan ere horrela ez gintuzten ikusiko baina, bestalde, urduri jartzeko moduko zerbait zen...

Izar: Bistatik galdu genituenean gerturatu behar genuela esan nuen. Eta inork ez zidan jaramonik egin! Hau da, jaramonik ere ez! Batere ez!

Jagoba: Muga bat dago. Gauza bat da zure laguna ondo dagoela ziurtatzea eta bestea beraien atzetik joatea, gertu-gertu egotea beraien kontuekin hasten

direnean... Nik ez nuke inola ere nahi izango lagunak begira egotea neska batekin larrutan hastear nagoenean!

Izar: Mutilek ezer ez egitea ulertu dezaket: mutilak dira. Beraiek ez dakite zer den gure posizioan egotea. Hau da, noiz jasan du mutil batek sexua izateko zigorra? Beraiei ez zaie altxatuko eta akabo. Hau da... mutilak dira.

Baina Enirek? Berak ezer ez egiteak bai harritu ninduen. Hau da, Enirek Itsasori gertatuko zitzaionarekin guztiz identifikatuta sentitu behar zuen bere burua! Eta han zegoen, lasai asko...

Enire: Esanak esan, inork ez zekien han ezer benetan gaizki zihoanik. Nik uste orain esan ditzakegun guztiak gero gertatutakoarengatik eraginda daudela. Momentuan, ziurrenik, ez genuen ezer sumatu.

Unax: Oihua heldu arte ez genuen ezer egin.

Jagoba: Oihuak dena aldatu zuen.

Izar: Oihu bat behar izan zuten. Hau da, oihu bat!! Meteorito bat lurrera erortzen ikusiko balute, ziur "oraindik ez dakigu ziur planeta joko ote duen" esango zutela!

Enire: Arroken atzean galdu genituen, eta ezin genuen ezer ikusi. Egoera horretan, oihua entzun arte ez genuen jakin zer egin.

Polizia 2: Nik ez nuen ezer entzun. Esandakoa, hondartzarako bidea oso luzea da behatokitik, eta etxe askoren artean pasa behar duzu.

Polizia 1: Tipok neska lurrera bultzatu zuen, eta gero bere gainera egin zuen. Ezin nuen argi ikusi, baina esango nuke arropa kentzen ahalegindu zela. Irratitik deitu nuen, eta laguntza eskatu nuen. Nire kideak hori entzungo zuen baita, eta pausoa azkartuko zuela espero nuen.

Polizia 2: Nire kideak laguntza eskatu zuenean jakin nuen larria zela. Uste baino larriagoa. Nahi baino larriagoa.

Izar: Ni izan nintzen korrika hasi zen lehena.

Jagoba: Denok korrika hasi ginen batera. Beste ezer eztabaidatzeko beharrik ez zegoela argi zegoen.

Unax: Kosta zitzaidan erreakzionatzea. Gero korrika hasi ginen. Uste dut horrenbeste erretzeak ez zidala on askorik egin.

Polizia 1: Mugikorra atera nuen eta grabatzen hasi nintzen. Baina gailuan espaziorik ez nuela zioen mezu bat agertu zitzaidan. Aurreko astean semearen urtebetetzea izan nuen eta... Tira, ba hori. Bideo pare bat borratu, bideoari kalitatea jaitsi, eta berriz grabatzen hasi nintzen.

Baina ordurako egoera aldatu zen.

Izar: Oihu gehiago entzun genituen. Nire bizitza arriskuan balego bezala egin nuen korrika, badakizu zer diodan? Hau da, inoiz ez dut horren azkar korrika egin. Hala ere Jagobak aurreratu ninduen, eta gero Unaxek, eta pentsatu nuen, "bazuten garaia bi hauek zeozer egiteko!"

Unax: Korrika ari nintzela dena ilunago bihurtu zela oroitzen dut. Ez nuen ezer ikusten. Uste dut arrokaren batekin estropezu egin eta lurrera erori nintzela. Oihuak areagotu ziren. Lurretik gorantz begiratu nuen, eta Itsaso ikusi nuen.

Jagoba: Lehenengo Unax erori zen, eta gero ni.

Izar: Eta gero lurrera erori ziren! Biak! Hauek bai baldarrak!

Enire: Bat-batean denak zeuden lurlean. Baina harriak pasa genituen, eta hondartzaren ezkerreko aldea ikus genezakeen. Badakizu zer leku diodan, ezta?

Izar: Eta orduan Itsaso ikusi genuen. Bere oihuen artean, ikusi egin genuen. Tipoa hasieran ez nuen ikusi, baina egoera ulertu nuenean, bai ikusi nuen.

Jagoba: Egoera... Ez zen guk espero genuena.

Polizia 1: Bideoan ikus dezakezuen... ez da dena. Bakarrik azken zatia dago. Egoera aldatu zen momentukoa. Tira, ez, ondorengo momentuetakoa.

Polizia 2: Lekura heldu nintzenean beste 4 gazte zeuden han. Ez dakit nondik agertu ziren.

Izar: Bat-batean polizia bat agertzen da! Hau da, polizia! Eta guk ez dugu deitu! Orduan pentsatu nuen lehen aldiz egoera oso larria zela. Ez, super larria. Polizia gertu dabilenean egoera beti da larria.

Baina berdin zitzaigun. Edo niri behintzat berdin zitzaidan. Niri Itsaso bakarrik axola zitzaidan. Hau da, polizia batek ez du nire laguna ni baino hobeto zainduko, edo?

Jagoba: Tipoa lurlean zegoen, etzanda.

Unax: Itsaso bere gainean zegoen.

Enire: Harri bat zuen esku artean Itsasok, eta buruan kolpeak ematen zizkion.

Izar: Tipoa ez zen mugitzen, baina Itsasok kolpeak ematen zizkion hala ere. Hau da, hilda zegoela ematen zuen.

Polizia 2: Oihuka ari zen neska batek harri bat zuen esku artean, eta lurrean etzanda zegoen tipo bat buruan kolpatzen zuen behin eta berriz. Arropa puskatuta zuen neskak, urratuta, tiraka kendu izan baliote bezala. Negarrez zegoela esango nuke, eta oihuka ere bai. Lau gazte eszenatik gertu ziren, begira.

Beraiek pasa nituen eta neskarengana joan nintzen.

Jagoba: Polizia bat agertu zen, eta larritu nintzela oroitu dezaket. Agian ez zen oso zintzoa izan nire aldetik, baina istilutan geundela pentsatu nuen. Kartzelan eta karguekin amaituko ez ote nuen, beldur izan nintzen. Uste dut Itsasorengan ez nuela gehiegi pentsatu une hartan... Ez nago oso harro, ez, baina erraza da hitz egitea bertan ez zaudenean...

Unax: Jagobak handik alde egiteko keinu bat egin zuela uste dut. Besotik eutsi nuen, eta Itsasorengana bultzatu baita. Gertatu zena ikusi behar genuen. Ez zen atzera egiteko momentua. Nahiz eta agian nik ere han ez egotea desiratzen nuen.

Polizia 2: Hondarra odolez bustita zegoen. Harriarekin kolpeak jo eta jo ari zen neskaren eskuak heldu nituen, eta asaldatu egin zen. Ez zuen espero inor egotea bertan. Mundutik at zegoela zirudien, eta kontaktu fisiko bat nabaritu zuenean planeta honetara itzuli zela. Oihu txiki bat irten zitzaion, baina oso bestelako oihua zen.

Gelditzeko eskatu niola uste dut. Pistolarik ez daramazunean jokatzeko modua guztiz aldatzen da. Pistola bat izan banu urrunetik oihu egingo nien eta denei gelditzeko eskatu, baina ez zen hala, eta horregatik gerturatu nintzen neskarengana. Baina pistola gabe sekula ez dakizu zer gertatuko den. Zenbaitetan ondo irteten da dena, eta beste askotan ez.

Gero beste laukotearengana itzuli nintzen, eta zerbait esan nien. Ez dut gogoratzen zer.

Jagoba: Handik ez mugitzeko agindu zigun orduan poliziak.

Izar: Normala iruditzen al zaizu? Hau da, bortxaketa saiakera bat bizi berri duzu eta gu ez mugitzea esatea baino ez zaio bururatzen tipo hari? Bortxaketa, motel. Bor-txa-ke-ta. Erraz esaten da, baina emakumea ez bazara ezin duzu ulertu. Ezin duzu.

Enire: Itsasorengatik arduratuta geunden, baina une hartan denok pentsatu genuen beste tipoarengan. Hau da, harri batekin kolpatu berri zuten, eta... badakizu zer esan nahi dudan, ezta?

Polizia 2: Neskaren azpian zegoen gixajoa hilda zegoen. Bereak egin zuen azken kolpeak jaso baino askoz arinago. Anbulantzia bidean zen, baina berandu jadanik. Zereginik ez zegoen han. Itsasgorak odola garbituko zuen, eta akabo. Hori da hondartzek duten abantaila: azkenean, itsasoak dena garbitzen du. Beti.

Gu legea beterazteko gaude. Eta pertsonak babesteko. Eta han tipo bat hilda zegoen. Eta nork hil zuen, ez zegoen dudarik...

Unax: Behin Itsaso salbu ikusi genuenean kezkatu ginen lehen aldiz beste kontuaz. Tipo bat hil berri zuen. Ez da gutxi. Erraz esaten da, eta egun hartan ikasi nuen egin ere erraz egiten dela. Baina...

Jagoba: Hildako bat. Eta gu laurok han erdian. Badakit ez genuela ezer egin, baina aizu, justizia nolakoa den badakizu... Argi zegoen gure izenak betirako heriotza harekin erlazionatuta geratuko zirela.

Izar: Oso harro sentiarazi ninduen Itsasok. Egin behar zena egin zuen. Hau da, Itsaso edo beste tipoa zen, ezta? Nik ere neure burua aukeratuko nuen. Beti.

Unax: Epaileak ez zuen gauza bera pentsatu.

Polizia 2: Agerikoa zen istilua ez zela erraza izango. Ez zela erraz konponduko. Nire ingurura begiratzea oroitzen dut, itsasoaren soinua, bakardadea, leku magiko haren handitasuna... eta banekien hura guztia ahaztu beharko nuela denboralditxo batez. Akabo.

Horrelakoa da gure lana, ezta? Ondo bizi gara ondo bizitzeari uzten diogun arte. Horregatik ordaintzen digute ordaintzen digutena; ez egiten dugunagatik, baizik eta gauzak okertzen direnean egin behar ditzakegunengatik. Gauzak ez okertzearen itxaropenarekin bizi zara egunero, baina badakizu gauzak beti okertzen direla.

Jagoba: Iskanbila itzela izan zen. Normala, ezta? Tipo bat hil duzu. Hau da, betiko hil duzu. Zer espero dezakezu? Bost axola zein zen arrazoia. Zuk hil duzu. Bortxatzea ez da hiltzea baino gehiago... Ados, gutxiago ere ez da, baina tira, biak dira krimenak, ezta? Ez dakit. Niri ondo iruditu zitzaidan epaileak egin zuena.

Izar: Ez nuen iskanbila ulertu. Zein zen arazoa? Hau da, tipo bat neska bat bortxatzen ahalegindu da, eta gaizki irten zaio. Non dago ulertzen ez duzun hori?

Enire: Gauzak oker joan ziren. Badakizu zelakoa den hori, ezta? Polizia eta epaileak eta prentsa tarteko daudenean, gauzak beti doaz oker. Barkatu prentsa aipatzearren, ez dizut ezer leporatu nahi, baina badakizu zeri buruz ari naizen, ezta? Mundu guztiak epaitu gintuen. Tira, gu ez horrenbeste, baina mundu guztiak epaitu zuen Itsaso. Zer erraza den urrunetik epaitzea, ezta? Zein zen eztabaidaren muina? Hilabeteak pasa ziren hori eztabaidatzen: norbait hil zutela zen arazoa, edota norbait horrek alde zurretik zu bortxatzen ahalegindu dela. Nork merezi du zigorra? Badakizu, gaur egun jendeak edozer gauza esan dezake ondoriorik gabe, eta asko pentsatu gabe. Horrela, gauzak oso oker joan ziren.

Unax: Ondo irten zela esango nuke. Itsaso bizirik dago, azken finean. Barkatu, zelan diozu? A, ados, Itsaso bizirik dagoela uste dugu esan nahi nuen. Eguna bizirik amaitu zuen behintzat. Begira, gertatutako guztiak eztabaidagarriak dira, baina bizirik egotea eta minik jaso ez izana ez. Beste tipoari zer gertatu zitzaion? Aizu, ekintzek ondorioak dituzte...

Izar: Norbaitentzat gaizki joan bazen kontu hau, Itsasorentzat izan zen. Begira, nazkatuta nago jendeak esaten dituen kontuez. Hau da, nolatan esan dezakezu Itsaso bizirik dagoela eta hori tipoak ezin dezakeela esan? Bera defendatu baino ez zen egin; zer erru izan dezake? Zergatik pasa behar salaketa prozesu publiko hura? Irabazi zuena tipoa izan zen! Sekulako bakea hartu zuen: ez du gehiago sufrituko, eta negatik balitz... ez dizut esango negatik balitz zer jasan beharko lukeen. Itsasok beldurrarekin bizi beharko du bere bizitza guztia, oraindik bizirik baldin badago! Eta gainera kartzelaren kontua dago!

Oraindik norbaitek pentsatuko du gaizkilea bera dela! Tira, argi dago baietz, baten batek hori pentsatu zuela: epaileak. Zahar alua...

Jagoba: Aizu, pertsona bat hil duzu! Zer espero duzu ba? 6 hilabete kartzelan ez zitzaidan gehiegizkoa iruditu...

Unax: Oso arraroa izan zen guztia. Nola epaitu norbait, norbait hori bertan ez badago? Lehen aldiz akusatu aurrean ez dagoela egin zen epaiketa. Itsaso ez zen inon agertzen, eta hala ere epaitu zuten. Legedia aldatu zen epaiketa egin ahal izateko! Historikoa izan zen.

Izar: Nazkagarria izan zen. Pentsak, poliziak, herrikoek... denek leporatu ziguten Itsasori ihes egiten lagundu izana. Barkatu, baina Itsasok bere kabuz egin zuen korrika, eta denok ezustean harrapatu gintuen. Ez leporatu guri poliziaren gaitasun eza.

Gainera, inork ez zigun *eskertu* Itsaso lagundu izana, badaezpada. Halakoa da jendea.

Polizia 1: Ni hondartzara heldu orduko neska ez zegoen han.

Polizia 2: Ez dakit nola gertatu zen, baina bat-batean neska aske zegoen eta korrika hasi zen. Bere atzetik hasi nintzen eta norbaitek zangotrabatu ninduen. Ziur nago. Baina ezin probatu... Epailearen aurrean agian harri batekin estropezu egin nuela onartu nuen, edo agian hori gertatu zela onartu nuen, probarik ez bainuen. Baina ziur nago norbaitek zangotrabatu ninduela.

Enire: Niri ez begiratu.

Izar: Azkenik Enirek zerbait egin zuen! Zer? Ez, barkatu, bakarrik hitz egiten ari nintzen... Poliziarena diozu? Itsaso korrika hasi zenean polizia atzetik hasi zitzaion, baina oinarekin harri bat jo eta lurrera erori zen.

Unax: Ez dut ondo oroitzen...

Jagoba: Nik ez nuen ezer ikusi. Epaietan argi geratu zen nengoen lekutik ezin nuela ikusi.

Izar: Esandakoa: oso harro nengoen Itsasok egin zuenaz. Eta oraindik nago.

Unax: Arazoa eskuetatik joan zitzaion mundu guztiari. Hildakoaren lagunek tipoaren heriotzaren berri izan zutenean Itsasoren bila egin nahi zuten. Herria hankaz gora jarri zuten baina ezin inon aurkitu. Gainera, ederki babestu genuen guk gure lagunaren familia. Baina hildakoa beste herrialde batekoa zen, eta ez dira berriro hemendik itzuli.

Baina atzerriko kontuekin... badakizu. Ministerioak eta epaileak eta legeak eta milaka gauza agertu ziren tarteko.

Ez zen erraza izan. Inorentzat. Baina batez ere Itsasorentzat. Edo hori uste dut.

Izar: Oso harro nago gure Itsasoz. Ez dakit jadanik esan dudan ala ez.

Enire: Pena ematen dit Itsasok. Guzti hori bizi behar izatea. Zegoen lekutik, edo dagoen lekutik, hori entzun behar izatea... Pena ematen dit. Berak ez zuen minik jasan nahi, besterik ez.

Unax: Inork ez du ulertzen Itsasok bizi izan zuena. Ez gau hartan, eta ondorengo urteetan. Nik ere ez dut ulertzen. Nik ikuspuntu bat eta iritzi bat eta ezer gutxi gehiago baino ezin dezaket izan, baina ez dut egunero oroitzapenekin bizitzeko beharrik.

Izar: Ez, gau hartatik ez dut berriz berarekin hitz egin. Oraindik oso harro sentiarazten nau, baina egia da ez zela ondo portatu gurekin. Bai, agian horretarako arrazoi onak izango zituen, baina kontua da ez zela ondo portatu. Ez zuen aurpegia eman eta arazoa gure eskutan utzi zuen. Zer? Ez, noski ez nintzela saiatu bera aurkitzen. Izatekotan, berak aurkitu beharko gintuen gu. Hau da, zu joan zara herritik eta zuk utzi gaituzu epaiketa baten erdian. Guk eman behar izan genuen aurpegia. Gainera, bazekien non geunden, ez zuen asko bilatu behar...

Enire: Ez, ez dut haren berririk azken aspaldian. Zenbat den hori? Ba ez dakit... Badakizu, urteak aurrera doazenean halakoak ahazteko joera dugu... Gau hartatik ez dut berriz ikusi, baina haren berri... ez dut oroitzen. Ihes egin eta berehala berriren bat heldu zitzaigula uste dut, baina gero... akabo.

Jagoba: Tipo bat hil duzu: zer espero duzu ba? 6 hilabete kartzelara joatea ez zitzaidan gehiegi iruditu niri. Ihes egitea gehiegizkoa iruditu zitzaidan ordea. Eta epaiketa bera gabe egitea... inoiz ez da halakorik gertatu. Oso arraroa izan zen dena. Bera epaitu izan balute, gu bakean utziko gintuzten. Bereko samarra izan zen, bai.

Errua norena zen? Ba suposatzen dut biek izan zutela erruaren zati bat; Itsaso tipo harekin joan ez balitz... Objektiboa den gauza bakarra norbait hil zuela da. 6 hilabete norbait hiltzearren... tira, normala iruditzen zait. Barkatu? Ez, ez dut berriz ikusi Itsaso. Haren berri ere ez nuen izan. Uste dut besteek bai jaso zutela berriren bat edo beste, baina ezer gutxi. Nik, ordea, ezertxo ere ez.

Iragana da niretzat. Atal hori itxita dago. Gaztetako kuadrillak ondo daude gaztetan. Hor geratu behar dute.

Enire: Urte asko pasa dira baina, tira, gustatuko litzaidake berriz ikustea. Badakizu, gaztetako kuadrilla beti da berezia...

Izar: Krimena jadanik preskribatuta dagoela entzun dugu denok, eta zu ere horregatik zaude hemen, ezta? Zu izan zara gurekin harremanetan jarri den lehen kazetaria; uste genuen kontu hau ahaztua egongo zela, baina antza oraindik batzuk oroitzen duzue... Hala ere, zure galdera erantzunez: ez, ez dut ikusi. Ea ikusi nahiko nukeen? Hori berarentzako galdera da, ez niretzat. Berak ez du atzamar bat ere ez mugitu gu ikustearren urte hauetan. Berari dagokio. Nire aldetik? Bai, zergatik ez.

Unax: Ez da nirekin kontaktuan jarri. Espero orain, dena lasaitu dela, berriren bat jasotzea. Niretzat lagun bat izaten jarraitzen du, eta lagunak ez dira ahazten ezta epaitzen ere. Goraintziak emazkiozu. Esaiozu badakiela non aurkitu gaitzakeen. Zelan? Kar-kar-kar, bai, lasai egoteko esan, zure ama beti izango da ongi etorria.

Zer?

Bai, arrazoi, borratu azken esaldi horiek...